

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 2106/2019 FORU AGINDUA, uztailaren 9koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 20ko 23/2019 Foru Dekretuaren babespean aurkeztutako diru-laguntza eskabideak ebatzi dituen. Foru dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2019. urtean ikerketa arkeologiko eta paleontologikoak sustatzeko foru diru-laguntzeterako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira (2019ko martxoaren 28ko BAO, 61).

2019ko martxoaren 28an Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoan 2019. urtean ikerketa arkeologiko eta paleontologikoak sustatzeko diru-laguntzen deialdia argitaratu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 20ko 23/2019 Foru Dekretuaren bidez.

Foru dekretu arautzailean xedatutakoarekin bat etorritik, aurkeztutako eskabideak maiatzaren 14ko 1544/2019 Euskara eta Kulturako Foru Aginduaren bidez eraturako epaimahai kalifikatzaileak ebaluatu zituen eta eskabide horiei buruzko ebazpen proposamena aurkeztu zion Saileko titularrari, 2019ko maiatzaren 31ko aktan agertzen denaren arabera.

Deialdi honetan diru-laguntzak emateko aurrekontu-muga maiatzaren 20ko 23/2019 Foru Dekretuko 19. oinarrian —Aurrekontu-partida— dago jasota:

«Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2019. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga jarraian azaltzen diren zenbatekoek zehatuzko dute:

Laurogei mila euro (80.000,00 euro), 2019ko ekitaldiko 0404 G / 336107 / 46999 / 0000 – 2007 / 0156 aurrekontu-partidaren kargura.»

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Jaurpide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i eta 67.1. artikuluek, eta Euskara, eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak eta haiekin bat datozen gainerako xedapenek Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko titularrari ematen dizkieten eskumenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Onestea foru agindu honen I. eranskinean jasotzen diren diru-laguntza eskaerak, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 20ko 23/2019 Foru Dekretuaren babespean.

Bigarrena: Ezestea foru agindu honen II. eranskinean jasotzen diren diru-laguntza eskabideak, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 20ko 23/2019 Foru Dekretuaren babespean.

Hirugarrena: Foru agindu honen III. eranskinean ageri den diru-laguntzari buruzko eskaera bertan behera utzitakotzat hartzea, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 68.1 artikularekin bat etorritik.

Laugarrena: Martxoaren 20ko 23/2019 Foru Dekretuko 12.4 oinarrian xedatutakoa betetzeko, ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea.

Bosgarrena: Agindua ematea Kultura Ondarearen Zerbitzuari, interesdunei behar den moduan komunika diezaien deialdi honen ebazpena, eta hala betetzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 20ko 23/2019 Foru Dekretuko 12.4 oinarria.

Seigarrena: Administrazio bidea agortzen duen foru agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultu-



ra eta Kiroleko foru diputatu andreari, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko (1) epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, aipatu den modu berean zenbatzen hasiko den bi (2) hilabeteko epean.

Bilbon, 2019ko uztailaren 9an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA



I. ERANSKINA / ANEXO I

DIRU-LAGUNTZA JASO DUTEN PROIEKTUAK / PROYECTOS SUBVENCIONADOS

NAN DNI	Eskatzailea Solicitante	Proiektua Proyecto	Aurrekontu araztua Presupuesto depurado (€)	Puntuak Puntos	Emandako zenbatekoa Importe concedido (€)
***6054**	IRIARTE CHIAPUSSO, MARÍA JOSÉ	Puesta en valor del yacimiento arqueológico de Silibranka (Mañaria).	18.500,00	90,00	14.800,00
***6516**	GARATE MAIDAGAN, DIEGO	Prospección arqueológica de grafismos parietales paleolíticos en el Territorio Histórico de Bizkaia I.	6.500,00	95,00	5.525,00
***6889**	RÍOS GARAIZAR, JOSEBA	Excavación y estudio del yacimiento de Aranbaltza (Barrika) VI Campaña.	20.007,00	95,00	17.005,95
***9540**	GÓMEZ OLIVENCIA, ASIER	Cronología de la extinción de macrofauna durante el Cuaternario en el País Vasco I. Cuan alpinus.	2.200,00	82,00	1.100,00
***5202**	LÓPEZ ONAINDIA, DIEGO	Datación por C14, estudio antropológico y análisis las cuvas sepulcrales de Lumentza (Lekeitio) y Txotxinkoba (Gizaburuaga).	2.935,00	80,00	1.450,00
***1131**	MATÉS LUQUE, JOSE MANUEL	Arqueología intermareal en Bizkaia. Campaña 2019.	15.754,00	81,00	11.185,34
***4639**	LAZUEN FERNÁNDEZ, TALÍA	Función del utillaje lítico neandertal en Bizkaia.	10.800,00	92,00	8.856,00
***8887**	GONZÁLEZ URQUIJO, JESUS EMILIO	Estudio de materiales de Axlor (Dima).	23.200,00	95,00	19.720,00
GUZTIRAKO KOPURUA / TOTAL					79.642,29

**II. ERANSKINA / ANEXO II
EZESPENAK / DESESTIMACIONES**

NAN DNI	Eskatzailea Solicitante	Proiektua Proyecto	Puntuak Puntos	Zergatia Motivo
***2039**	FRANCO PÉREZ, FRANCISCO JAVIER	Paleometalurgia en Bizkaia entre la antigüedad y la plena Edad Media. (Fase II).	63,00	Ezetsi egin da eskabidea, ez baitu 23/2019 Foru Dekretuaren 9.2. oinarrian ezarririk dagoen gutxieneko puntuazioa erdietsi. Se desestima la solicitud por no haberse alcanzado la puntuación mínima esta- blecida en la base 9.2 del Decreto Foral 23/2019.
***3313**	REGALADO BUENO, ENCARNACIÓN	Estudios arqueológicos en Baltzola.	66,00	Ezetsi egin da eskabidea, ez baitu 23/2019 Foru Dekretuaren 9.2. oinarrian ezarririk dagoen gutxieneko puntuazioa erdietsi. Se desestima la solicitud por no haberse alcanzado la puntuación mínima esta- blecida en la base 9.2 del Decreto Foral 23/2019.

**III. ERANSKINA / ANEXO III
ETSIPENAK / DESISTIMIENTOS**

NAN DNI	Eskatzailea Solicitante	Proiektua Proyecto	Zergatia Motivo
***3310**	CUBAS MORERA, MIRIAM	Intervención arqueológica en la estructura tumular de Munarriaundi (Gorliz).	Ez du bete 2019ko maiatzaren 15ean egindako errekerimendua 23/2019 Foru Dekretuaren 7. oinarriaren arabera. No atender el requerimiento formulado con fecha 15 de mayo de 2019 según lo dispuesto en la base 7 del Decreto Foral 23/2019.